

Big Ben, Buckingham Palace, London Eye, The Westminster Palace, bus gorriak eta taxi beltzak dira Londonen inguruan gadetuta erantzunik ohikoenak. Ikasturte berezia izan da hau niretzat eta [Magisteritzako](#) azken txanpa honek London gertuagotik ezagutzeko aukera eskaini dit. Hiru hilabete luze eman ditut hemen, ez da hortaz asteburu bateko bisita turistikoa izan honako egonaldia.

Bidaia agentzietako argazkiak bigarren plano batera pasa dira. Janaria non erosi, otorduen eraldaketa, lanaldien gorabeherak, erlazio sozialak eta hizkuntza bere osotasunean ez menperatzeak dakarren *step by step* berregokitze prozesua izan da bizi dudana. Hamaika milloi londoner-en artean nire minimunduaren orbita nolabait aldatu da, konturatu gabe apur bat (oso apurra izan bada ere) [londonish](#) izateko bidean.

Hortaz, [LondonEye](#) izeneko proiektuan aurkituko duzuen da nire zentzuen bidez esperimenterikoa, hiri handi baten argazki multikoloretsua , alegia.

- Janaria
- Aisialdia
- Ikurrak eta seinaleak
- Ohiturak eta egutegiko egun bereziak

Mila kontu txiki dira orohar, denak ezin bildu, denak ezin ezagutu epe laburrean, ezta denak argitu nahi ere ez...hona hemen click txiki batzuk, niri arreta egin didatenak...auskalo nori zerk egingo liokeen zer...kalidoskopikoak gizakiok...